

EGA 2021

Antolamendu arauak

Covid-19 osasun krisia dela-eta, honako arautegi hau urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.

1) Deialdiak

C1 mailako Euskara Gaitasunaren egiaztatzeko azterketak antolatuko dira 2021ean Iparraldean.

C1 maila egiaztatzeko probak, deialdi irekiz, bi azterketa-alditan izanen dira: 2021eko udaberrian eta udazkenean.

2) Nori irekiak: baldintzak

Azterketa hau bere baitatik edo ikastetxe batean landuz, C1 mailako (EGA) gaitasun-agiria eskuratu nahi duen edozein¹ pertsonari zuzendua zaio, deialdi irekiz, 2021eko abenduaren 31n berantenez 17 urte betetzen dituen unetik; hots 2005eko urtarrilaren 1.a aitzin sortua. Salbuespen bakarra: 2005ean sortu baina 2004koen ikasgelan diren azterketariak.

Azterketan parte hartu ahal izateko 24 €-ko saria ordaindu beharko da, deialdi bakoitzeko.

Azterketa egunean nortasun agiri bat aurkeztu beharko du azterketariak.

3) Azterketen leku-egunak

2021eko otsailean, EEPko webgunean eta hedabideen bitartez argitaratuko dira urteko egiaztapen dispositiboaren epe eta kokaguneak.

Antolaketa eta baliabide arrazoiak direla medio, azterketari kopuru mugatua onartuko da azterketara, baldintza geografikoa kontuan hartuz: frantziar Estatuan sortu, bizi, lan egin edo ikasten ari diren azterketariak baizik ez dira onartuko.

4) Errepikapenak

Azterketari bakoitza nahi bezainbat aldiz aurkezten ahalko da azterketa bakoitzera.

5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere azterketa ikusi nahi balu, Batzorde Zientifikoak finkatuko duen data batean egin lezake, osasun krisiari aurre egiteko neurriek hori baimentzen badute.

6) Baliogabetzea

Azterketa denboran tranpa egiten duen edo saiutzen den azterketaria, edo debekatuak diren lagungarriez baliatzen dena, azterketatik kanporatua izanen da eta haren azterketa baliogabetua.

Kanporatze eta baliogabetze erabakia, azterketa eguneko aztertzaile-taldearen esku izanen da.

7) Azterketaren iragan molde zehatza

Azterketa idatziaren iragan moldea: **2021 C1 Azterketa eredia** dokumentuaren arabera egingen da. Covid-19aren osasun krisiarengatik, segurtasun baldintza bereziak errespetatu beharko dira (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak eta ibilbide noranzkoak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) baita une oro indarrean diren arauzko neurriak.

Ahozko azterketaren iragan moldea: **2021 C1 Azterketa eredia** dokumentuaren arabera egingen da. Covid-19aren osasun krisiarengatik, segurtasun baldintza bereziak errespetatu beharko dira (masken derrigorrezko erabilera, pertsonen arteko distantziak eta ibilbide noranzkoak errespetatzea, eskuak usu ikuztea...) baita une oro indarrean diren arauzko neurriak ere.

Epaimahaiaren osaera eta antolaketari dagokionez:

- Ahozko azterketara aurkezten den orok, bi aztertzailez osatu epaimahai baten aitzinean frogatu beharko du C1 mailari dagokion euskara gaitasuna duela: ahozko adierazpen jarraikia eta elkarreragineko gaitasunak eskuratu dituela.
- Epaimahaikideetako batek (edo aldizka, nahi izanez gero) azterketara aurkezturikoaren nortasun agiria egiaztatu eta azterketaren alde teknikoa segurtatuko du (izen-deiturak hartzea, minutuen neurketa...), besteak azterketaria galdekatuko duen bitartean.